

“Premiazkoa dugu gure baitan elkartasuna bultzatzea”

- “Pinuaren gaitzak arrasto izugarria utzi du gure mendi eta basoetan. Baso jabeok jasandako diru-kalteak 100 milioi euro baina handiagoak dira honezkero”
- “Honen guztiaren aurrean, harritzekoa da Administrazioak erakutsi duen arreta eskasa; izan ere, gertakari honek ekoizleok abandonura garamatza eta industria etorkizunean lehengaiak inportatzera”.
- “Koiuntura honetara iritsi izanak zera esan nahi du: gizarteak ez duela arazotzat jotzen basoak eta mendiak bertan behera uztea, abandonua, alegia; eta guztiok dugu hori helarazi ez izanaren ardura”
- “Bidegurutzean gaude. Une erabakigarri batean. Gure eginkizun nagusia, deforestazioa ekiditea, alegia, nekez lor dezakegula ikusirik, ezinezkoa dirudi kezkatzen gaituen beste arazo nagusiari heltzea: belaunaldien arteko erreleboa”
- “Komunikazio tresna hau behar-beharrezkoa dugu gure baitan. Urtean zehar, batzarretik batzarrera sortzen zaigun zuloak eragiten duen isolamendua haustera dator, alde batetik; eta gure kezkei argia eta erantzunak ematera, bestetik”

LEHENDAKARIAREN GUTUNA, OSORIK

Basogintzan une zailak izan ditugu historian zehar, baina azken urteotan bizi ditugunak eta ondorengoetan etorriko direnak, ez dira samurragoak izango. Pinuaren gaitzak, banda marroia deritzon hori, arrasto izugarria eragin du gure mendietan. Orain arte errentagarritasun gehien eman diguten espezieak erasotu ditu eta ondorioa, hauxe: baso jabeok jasan ditugun diru-kalteak, 100 milioi eurotik gora honezkero.

Eta tamalez, egoera honen aurrean, ez dira taxuzko neurriak hartu. Ez nahikoak. Are gehiago: agerian geratu da azken urteotako joera kezagarria, kalteak eragindako zama

handiena baso jabearen bizkar gainean botatzearena, alegia. Eta ez da zilegi. Kontuan izan behar dugu basogintzak, lana eman eta ekonomia sustatzeaz gain, gipuzkoar gizarteari urtero 90 milioi euroko zeharkako onura dakarkiola. Horrela aitortzen du Eusko Jaurlaritzak berak.

Sortu den egoeraren larritasunaz jabetzen bagara, erantzuna ematea erakunde guztiei dagokie. Eta hori horrela gertatzen ez bada, zera aitortu beharrean gaude: gizarteak ez duela arazotzat jotzen basok bertan behera uztea, abandonua. Hor guztiok dugu ardura. Ez dugu jakin izan horren garrantzia gizarteari helarazten. Ezta ere, hainbat albiste eta mezu faltsuri aurre egiten. Interes sozial eta politikoko zenbait alderdiek gizarteratu dituzte orain arte, egiari zor, hainbat mezu gaizto eta ez dugu horiek neutralizatzen jakin izan.

Bestalde, harritzekoa da Administrazioak pinuaren gaitzak eragindako sarraskiaren aurrean erakutsitako arreta eskasa. Ekoizleak abandonura garamatza gabezia horrek eta industria lehengaiak inportatzera. Atsekabea sortzen du banda marroiak gurean izan duen eragina ikusteak, izan ere desagartzeko kinka larrian jarri baitu Intsinis pinua: sozialki, ekonomikoki eta ingurunearen ikuspegitik landa inguruneari hainbeste lagundu eta eman dion espeziea.

Onartu beharrean gaude, ustez gure alde izan ditugun inbestigazio baliabideak ez direla nahikoa izan; ez behintzat, emaitzei begiratzen badiegu. Eta horrek bakardade sentrazioa eragin digu baso jabeoi. Gure jardueraren egungo zailtasunak nabariak dira, nahiz eta belaunaldietan zehar lan eskerga egin izan dugun. Zalantzarik ez, horretan. Baina berriro diot: une erabakigarri batean gaude. Gure eginkizun nagusia, deforestazioa ekiditea, alegia, nekez lor dezakegula ikusirik, ezinezkoa dirudi kezkatzen gaituen beste arazo nagusiarri heltzea: belaunaldien arteko erreleboa.

Premiazkoa dugu: horren aurrean, gure elkartasuna sendotu eta errotzea, informazioa erdigunean jarriz. Komunikazio tresna honek bidirekzionala behar du, joan-etorrikoa. Hortaz gain, merkatuan gertatzen direnak aztertu eta munduko beste tokietan darabilten baso estrategiak gerturatuko dizkigu. Urtean zehar, batzarretik batzarrera sortzen zaigun zuloak eragindako bakardadea betetzera ere badator; eta gure kezkei argia eta erantzunak emango dizkie.

Juan Carlos Berraondo, presidente de GEBE.